



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Estimado/a amigo/a:

A punto de consumir la cuarta parte de la legislatura, y con motivo del presupuesto para 2004, Elorza ha echado a perder otra oportunidad para que valores como el diálogo, el respeto, el pluralismo, el consenso y la concertación sean de verdad los valores que guíen la acción del ayuntamiento.

En una democracia la voluntad ciudadana es cambiante, pero lo que no es cambiante es el *respeto* a la voluntad ciudadana. Eso es *sagrado*, pero Elorza y su gobierno no lo han respetado; al igual que el diálogo y el consenso son las principales fuentes alimentadoras del juego democrático, pero han impedido su ejercicio. El gobierno socialista ha optado por la imposición frente al diálogo y el consenso. Hoy en el ayuntamiento de nuestra ciudad la democracia goza de una salud más endeble que hace un mes, porque el gobierno socialista, con tal de sacar adelante su presupuesto, ha dado la espalda y ha hecho caso omiso a la voluntad de la mayoría del ayuntamiento.

Probablemente nos encontramos ante la decisión más contraria a la democracia adoptada en estos 25 años en el ayuntamiento. No todo lo que es legal es por ello ético y positivo para avanzar en la democracia. Ejemplos hay varios: condenar al lehendakari con pena de cárcel por convocar una consulta sería legal, porque está previsto en el Código Penal, pero no por eso dejaría de ser reprobable y negativo desde el punto de vista democrático y ético, negativo para la convivencia. Pues, bien: la acción de Elorza es negativa, porque sólo provoca más crispación, tensión, incomunicación y división en la ya de por sí escasa relación entre los grupos municipales y el alcalde y su gobierno. Es una pena que Elorza haya cerrado las puertas al diálogo y la concertación para aprobar el presupuesto precisamente porque tenía previsto utilizar esta argucia legal para imponer su presupuesto en contra de la voluntad de la mayoría.

Es evidente, pues, que el presupuesto "aprobado" por Elorza tiene un enorme déficit democrático, y eso, para quienes, como PNV-EA, tenemos claro que no todo vale y que el fin (el presupuesto) no justifica los medios (un procedimiento antidemocrático), es una mala noticia.

Pero el presupuesto "aprobado" por Elorza es una oportunidad perdida para la ciudad también por su contenido, porque no contempla para estos cuatro años compromisos presupuestarios serios en materia de proyectos y prioridades. El grupo PNV-EA ha pretendido que el ayuntamiento destine muchos más recursos propios (15,4 millones de euros más que el gobierno en este año 2004) para la compra de suelo para vivienda y para la promoción y construcción de viviendas. Hemos propuesto, también, un esfuerzo de inversión mayor para la regeneración de barrios, 17 actuaciones más y 4,4 millones más que el gobierno.

Hemos pretendido un compromiso serio (eso en la administración significa poner dinero) para eliminar el viaducto de Carlos I y convertirlo en avenida urbana, como Sancho el Sabio, destinando 6 millones de euros. Sería el mejor parque que pudiéramos construir para los miles de



Zinegotziak - Concejales y Concejales

Jaione Arratibel (EA), Patxi Bazterrika (PNV), Pilar Elgoibar (Independiente PNV), Xabier Ezeizabarrena (Independiente PNV), Jokin Ezkerro (EA), Harkaitz Millan (EA), Joakin Telleria (PNV), Mikel Ubillos (EA)



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

ciudadanos que viven en Amara. Hemos pretendido eliminar el viaducto de Iztueta, esa barrera divisoria propia de tiempos pasados.

Hemos vuelto a defender una apuesta clara, sin titubeos, para la implantación del tranvía en las calles de Donostia para el año 2007. El alcalde sigue sin decidirse, no se atreve a dar el paso: mientras tanto, Donostia sigue "perdiendo el tren". Hemos propuesto destinar 17 millones en cuatro años.

Y hemos apostado fuerte por San Telmo, con decisión, destinando recursos (8,7 millones en cuatro años). Los grandes equipamientos culturales requieren un fuerte impulso municipal en la ciudad, tanto Tabacalera como el Victoria Eugenia, como el Aquarium, y también San Telmo, el gran "olvidado" en tantos años.

Hemos propuesto también un esfuerzo económico sólido para una infraestructura tan decisiva como ha de ser la Estación Intermodal, al igual que para la construcción de 2 nuevos puentes sobre el Urumea.

Hemos propuesto, asimismo, más esfuerzo en política social, proponiendo, por ejemplo, la creación de un Servicio de atención integral y permanente (24 horas / 7 días de la semana) para las mujeres maltratadas. Y hemos pretendido un compromiso de 5 millones de euros para cuatro años para la rehabilitación y conservación de las instalaciones deportivas, que buena falta les hace.

Lamentablemente, muchas de estas actuaciones siguen sin contar con el esfuerzo presupuestario necesario para que se conviertan en realidades tangibles, bien porque no se prevén recursos suficientes para su ejecución, bien porque no se prevé nada, como el tranvía, Carlos I o Iztueta.

Elorza no está de acuerdo con muchas de estas propuestas, y por eso no ha querido negociar con nosotros. Pero seguiremos trabajando para que Donostia no pierda el tren del futuro. El presupuesto de Elorza es un presupuesto continuista. Posiblemente sea inevitable cuando alguien lleva ya 13 años en el mismo puesto, como lleva Elorza. Pero Donostia necesita proyectos tractores, nuevas ideas y un gobierno con ambición. Y necesita acuerdos de mayoría, sin que nadie, menos una minoría, monopolice el gobierno. Necesitamos diálogo y concertación. Seguiremos trabajando en positivo, como hasta ahora.


ROMAN SUDUPE OLAIZOLA
Portavoz del grupo EAJ/PNV-EA

En Donostia, 28 de abril de 2004



Zinegotziak - Concejales y Concejales

Jaione Arratibel (EA), Patxi Bazterrika (PNV), Pilar Elgoibar (Independiente PNV), Xabier Ezeizabarrena (Independiente PNV), Jokin Ezkerro (EA), Harkaitz Millan (EA), Joakin Telleria (PNV), Mikel Ubillos (EA)



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Adiskide, hori:

Legegintzaldiaren laurden bat burutzear gauden honetan, eta 2004ko aurrekontua dela eta, elkarrizketa, errespetua, aniztasuna, kontsentsua eta hitzarmena Udalaren ekintza gidatzeko benetako balioak izateko beste aukera bat ere galdu du Odon Elorzak.

Badakigu herritarren borondatea aldakorra izaten dela demokrazian, baina inolaz ere aldatzen ez dena herritarren borondatea errespetatu beharra da. Hori sakratua da, demokraziaren funtsezko zutabea; baina, Elorzak eta bere gobernuak ez dute errespetatu. Era berean, elkarrizketa eta kontsentsua joko demokratikoaren lehengaiak dira, elikagai ezinbestekoak; baina, ez dute horretarako biderik ere eman. Eta, hori guztia zalantzan geratu da gure Udalean; inposaketaren alde egin duelako gobernuak, elkarrizketaren eta kontsentsuaren alde egin beharrean. Gobernu sozialistaren erabaki horren ondorioz, orain hilabete baino osasun txarragoa dauka gure hiriko udalaren demokraziak, aurrekontua aurrera ateratzeagatik, bizkarra erakutsi eta udalaren gehiengoaren borondateari bizkarra erakutsi eta muzin egin baitio gobernu sozialistak.

Seguruenera erabaki horixe izango da udal honetan joan deneko 25 urte hauetan demokraziaren kontra hartu den erabakirik handiena. Legezkoa den guztia ez da ez etikoa ez eta demokrazian aurrera egiteko modukoa ere. Horrelako adibideak asko daude: lehendakaria kartzelara sartzea herri kontsulta deitzeagatik legezkoa izango litzateke, halaxe aurreikusita dagoelako Zigor Kodean, baina, hala eta guztiz ere, gaitzesteko modukoa eta kaltegarria izango litzateke demokraziaren eta etikaren aldetik, kaltegarria elkarbizitzarako. Bada, Elorzaren jokamoldea kaltegarria da Udalaren funtzionamendurako; emegazioa, tentsioa, inkomunikazioa eta zatiketa besterik ez dakarrelako lehen ere eten handia duen harremanean, udal taldeen eta alkate eta bere gobernuaren arteko harremanean. Pena da Elorzak elkarrizketari eta hitzarmenari ateak itxi izana, eta ixtea, gainera, zergatik eta lege trikimailu hori erabiltzea pentsatuta zuelako bere aurrekontua gehiengoaren kontra inposatzeko, hau da, herritarren borondatearen kontra.

Bistan dago, beraz, Elorzak "onartutako" aurrekontuak defizit demokratiko ikaragarria duela, eta hori albiste txarra da denak ez duela balio eta xedeak (aurrekontuak) ez duela bidea (demokraziaren kontrako prozedura) zilegi egiten pentsatzen dugunontzat, hala pentsatzen baitugu guk, PNV-EA taldeak.

Elorzak "onartutako" aurrekontua, ordea, beste aukera bat galtzea da baita eduki aldetik ere, ez baitu ahalegin eta konpromiso seriorik jasotzen, proiektu eta lehentasun aldetik, datozen lau urte hauetarako. PNV-EA taldeak, aurkeztu zuen aurrekontu alternatiboaren eta egin dituen zuzenketa-eske horiekin guztiekin, askoz ere baliabide propio gehiago (gobernuak 2004rako izendatu duena baino 15,4 milioi euro gehiago) erabili nahi izan ditu etxeak egiteko lurra erosteko eta etxeak sustatu eta egiteko; izan ere, horixe eskatzen baitu gure hirian dugun arazorik nagusienak. Era berean, inbertsio ahalegin handiagoa egitea proposatu dugu auzoak biziberritzeko ere; 4,4 milioi euro gehiago, hain zuzen ere, eta 17 ekimen gehiago, gobernuaren aldean. Konpromiso serio bat ere hartu nahi dugu (horrek Administrazioan dirua jartzea esanahi du) Karlos I.aren zubi-bidea kendu eta Antso Jakitunaren moduko hiribidea egiteko, eta, horrela, 6 milioi euro izendatuko ditugu asmo horretarako. Seguru gaude hori dela Amaran bizi diren milaka bizilagunentzako egin dezakegun parkerik onena. Eta Izuetako zubi-bidea ere kendu nahi dugu, lehen garai bateko zatiketa langa hori.

Apustu garbia egin dugu, halaber, ezeren zalantza izpirik gabe, 2007rako tranbia jartzeko Donostiako kaleetan. Guk, argi eta garbi daukagu; alkateak, ez du erabaki oraindik, ez da atrebitzen lehenbiziko pasua ematen. Bitartean, ordea, beste tren bat ere galtzen ari da Donostia. Guk, lau urtean 17 milioi jartzea proposatu dugu.



Zinegotziak - Concejales y Concejales

Jaione Arratibel (EA), Patxi Baztarrika (PNV), Pilar Elgoibar (Independiente PNV), Xabier Ezeizabarrena (Independiente PNV), Jokin Ezkerro (EA), Harkaitz Millan (EA), Joakin Telleria (PNV), Mikel Ubillos (EA)



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Eta apustu handia egin dugu, apustu irmoa, San Telmoren alde ere, eta, hala, 8,7 milioi euro jarriko ditugu lau urtean. Kultur ekipamendu handiek udalaren bultzada handia behar dute: Tabacalerak, Victoria Eugeniak, Aquariumak eta, nola ez, baita aspaldian erabat "ahaztuta" izan den San Telmok ere.

Ahalegin ekonomiko handia proposatu dugu erabakigarria izango den beste azpiegitura batentzat ere. Eta beste hainbeste egin dugu Urumearen alde batetik bestera bi zubi berri egiteko ere.

Gizarte gaietako politikan ere ahalegin handiagoa egitea proposatu dugu. Alde horretatik, zerbitzu guztiak etengabe emango dituen zerbitzua (eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan) sortzea proposatu dugu tratu txarrak nozitzen dituzten emakumeentzat. Eta lau urtean 5 milioi euro sartzeko konpromisoa ere jaso nahi izan dugu kirol instalazioak konpondu eta mantentzeko, badaukate premia ederra-eta.

Eta, pena bada ere, egitasmo horietako asko eta askok ez baitute aurrera ateratzeko behar adina dirurik aurreikusten aurrekontuetan, eta, batzu-batzuek (tranbiak edota Karlos I.aren hiribideko nahiz Iztuetako zubi-bideek, esate baterako) ez dute batere dirurik izango aurrekontuetan.

Elorza ez dago konforme proposamen horietako askorekin, eta horregatik ez du negoziatu nahi izan gurekin. Baina, guk lanean segitzen dugu, Donostiak etorkizunaren trenik gal ez dezan. Elorzaren aurrekontua lehengoari eusteko aurrekontua da. Beste erremediorik ez da izango, agian, Elorzak bezala 13 urte postu batean daramatzanarentzat. Baina, Donostiak, aurrera egiteko moduko proiektuak behar ditu, ideia berriak, asmo handixeagoak izango dituen gobernua. Eta, jakina, gehiengoaren babesarekin hartutako erabakiak behar ditu, inork —eta zer esanik ez gutxiengoak— monopolizatu ez dezan gobernua. Elkarrizketa eta hitzarmena behar dugu. Guk, orain arte bezalaxe, hiriaren alde segituko dugu lanean, positiboan.

ROMAN SUDUPE OLAIZOLA
EAJ/PNV-EAren bozeramailea

Donostian, 200ko apirilaren 28an



Zinegotziak - Concejales y Concejales

Jaione Arratibel (EA), Patxi Baztarrika (PNV), Pilar Elgoibar (Independiente PNV), Xabier Ezeizabarrena (Independiente PNV), Jokin Ezkerro (EA), Harkaitz Millan (EA), Joakin Telleria (PNV), Mikel Ubillos (EA)